



ANDOAIN: HAURTZAROAREKIKO TRATU ONAREKIN KONPROMETITUTAKO UDALERRIA

TABLETAK EMANTIK PROGRAMAREN BARRUAN LAGATZEKO SINADURA

EMANTIK programaren emaitza onak ikusita, ikasturte honetan jantokira eta DBHko lehen mailara zabalduko da (azken hori Educoren finantzaketarekin). Gogoratu EMANTIK programak Andoaingo haurren egoera emozional ona zaindu nahi duela.

Programa hau aplikazio erraz batean oinarritzen da, eta tablet baten bidez sistematikoki erregistratzen da ikasleen egoera emozionala. Orain arte, herriko hiru ikastetxeetan garatu da (Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara) eta, irakasleek programa hori artatu eta kudeatu ahal izateko, haurrak babesten adituak diren bi psikologo dituzte, irakasleei antzemandako kasuak artatzeko aholkuak ematen dizkietenak.

Kanjo sistema informatikoaren bidez detektatzen da. Sistema horren bidez, haurrek beren egoera emozionala klikatzen dute: "Poza/tristura/beldurra/lasaitasuna/haserrea/nazka", eta, hortik, aurrean duten zailtasunari heldu ahal izatea. Egoera emozionalaren termometro bat da, dituzten zailtasunak goiz detektatu eta landu ahal izateko.

Programa hau martxan jartzeko, ezinbestekoa da gailu elektroniko baten laguntza izatea, zehazki, tableten laguntza. Ekitaldi honetan, Andoaingo Udalak eta Aita Larramendi Ikastolak eta La Salle-Berrozpe Ikastetxeak 2019ko urriaren 30ean sinatutako hitzarmenei jarraipena emango diegu, eta Leizaran Ikastetxearekin hitzarmen berri bat sinatuko dugu, programa gauzatzeko beharrezkoak diren tabletak lagatzeko.

Udaletik eskerrak eman nahi dizkiegu ikastetxe, zuzendaritza, irakasle, jangela eta guraso guztiei, programak izan duen harrera onagatik eta Andoain, gure herria, haurtzaroarekiko tratu onarekin konprometitutako udalerria izan dadin laguntzeagatik.

Andoain, 2021eko abenduak 2



Andoaingo Udala



ANDOAIN: MUNICIPIO COMPROMETIDO CON EL BUEN TRATO HACIA LA INFANCIA

FIRMA DE CESIÓN DE TABLETS DENTRO DEL PROGRAMA EMANTIK

Dados los buenos resultados del programa EMANTIK, este curso, se va a ampliar al comedor y también a primero de la ESO (este último con financiación de Educo). Recordar que el programa EMANTIK, trata de velar por el buen estado emocional de las niñas y niños de Andoain.

Este programa se apoya en una sencilla aplicación que registra a través de una Tablet de forma sistemática el estado emocional del alumnado. Hasta ahora, se ha desarrollado en los tres centros educativos de la localidad (de 3º a 6º de primaria) y, para que el profesorado pueda atender y gestionar dicho programa, cuentan con 2 psicólogas expertas en protección infantil que asesoran al profesorado de cómo atender los casos detectados.

Se detecta a través del sistema informático Kanjo a través del cual las niñas y niños clican su estado emocional: “alegría / tristeza / miedo / tranquilidad / enfadado / asco” y, desde ahí, poder abordar la dificultad que presente. Es un termómetro del estado emocional, para poder detectar y abordar las dificultades que presentan de manera temprana.

Para la puesta en marcha de este programa es imprescindible contar con el apoyo de un dispositivo electrónico, en concreto, tablets. En este acto, vamos a dar continuidad a los convenios firmados entre el Ayuntamiento de Andoain y Aita Larramendi Ikastola y La Salle-Berrozpe Ikastetxea el 30 de octubre de 2019 y, vamos a proceder a la firma de un convenio nuevo con Leizaran Ikastetxea para la cesión de tablets necesaria para la ejecución del programa.

Desde el Ayuntamiento, queremos agradecer a toda la comunidad escolar de cada uno de los centros, dirección, profesorado, comedor y padres y madres por la buena acogida del programa y por contribuir en que Andoain, nuestro pueblo, se convierta en un municipio comprometido con el buen trato hacia la infancia.

Andoain, 2 de diciembre de 2021